

Año LXXXV. urtea

288 - 2024

Enero-abril

Urtarrila-apirila



Príncipe de Viana

SEPARATA

2023, euskarazko nafar
literatura feminizatzen
hasi zen urtea?

Ángel Erro Jiménez

Sumario / Aurkibidea

Príncipe de Viana

Año LXXXV · n.º 288 · enero-abril de 2024
LXXXV. urtea · 288. zk. · 2024ko urtarrila-apirila

ARTE / ARTEA

Eristain, solar de los Solchaga y sus pinturas murales. Estudio del contexto histórico y de las pinturas murales de San Juan Bautista de Eristain
Eneko Tuduri Zubillaga 9

Estudio histórico artístico: *La heroína. El alegato de Ana de Velasco*
Amaia Vicente Osete 51

HISTORIA

Joinville y *Janville*, franceses en Navarra (1255-1294)
M.ª Raquel García Arancón 89

Suicidio y superstición en la Navarra del siglo XVI.
Muerte y desaparición de Tomás de Berrizaun
Koldobika Sáenz del Castillo Velasco 115

La (otra) historia real del padre Ayestarán
Pilar Gil Molina 129

LITERATURA

Saiz-Calderón y los escritores navarros de hace un siglo
Miguel José Izu Belloso 153

SOCIOLINGÜÍSTICA / SOZIOLINGUISTIKA

Elementos discursivos con resonancia social para el fomento de una lengua regional o minoritaria: el caso de la lengua vasca en Navarra
Xabier Erize Etxegarai, Carlos Vilches 177

DERECHO / ZUZENBIDEA

Historia, cultura y derecho del Camino de Santiago en Navarra
Juan Cruz Alli Aranguren 209

Sumario / Aurkibidea

LOS TRABAJOS Y LOS DÍAS DEL AÑO 2023 / 2023ko LANAK ETA EGUNAK

Tesis doctorales sobre temática navarra de ciencias humanas, sociales
y jurídicas, leídas en 2023

(Según la Base de datos Teseo del Ministerio de Educación) 237

Autores navarros en castellano, año 2023

Mikel Zuza Viniegra 245

2023, euskarazko nafar literatura feminizatzen hasi zen urtea?

Ángel Erro Jiménez 249

Desvelando otras liturgias. Cuando la dimensión humana se contempla
como esencial en el trabajo profesional en arte

Mireya Martín Larumbe 255

Noticias sobre etnografía, folclore y cultura tradicional en 2023

David Mariezkurrena Iturmendi 265

Valor y prudencia. Lecciones cinematográficas para el audiovisual navarro

Marga Gutiérrez Díez 275

Historia y memoria: un nuevo máster universitario en la UPNA

Fernando Mendiola Gonzalo, Inés Gabari Gambarte 289

Los días y las horas en la Universidad de Navarra 2023

Yolanda Cagigas Ocejo 299

Entrevista a Dolores Redondo

Alicia Ezker Calvo 309

Discurso pronunciado por Dolores Redondo en la entrega del Premio Príncipe
de Viana de la Cultura 2023

Dolores Redondo 319

Currículums 323

Analytic Summary 327

Normas para la presentación de originales / Idazlanak aurkezteko arauak /
Rules for the submission of originals 331

2023, euskarazko nafar literatura feminizatzen hasi zen urtea?

Ángel Erro Jiménez

Escritor

Idazleaangerro@yahoo.es

DOI: <https://doi.org/10.35462/pv.288.11>

Iaz, 2023an, Nafarroako euskal literaturak eskaini dituen liburuen zerrenda osatzen ari nintzela, beti bezala baten bat kanpoan uzteko arriskuari aurre eginez eta kategoria horretako irizpideekin ez asmatzearen beldur, halako hipotesi bat zirriboratu zait begien aurrean pilatzen hasitako izenburu eta izenei begira: aurten, agian ez lehen-dabiziko aldiz, ez ote diren emakumeak, emakumeek idatzitako eta itzulitako literatura, nagusitu gurean, oro har eta beharbada genero guztietan ere. Berandutu den gertakizuna. Gurean ez ziren asko izan, nabarmentzeko moduko baten bat egon bazen, Arantxa Urretabizkaia (70. hamarkadan argitaratzen hasitakoa) edo Itxaro Borda (80. hamarkadan hasitakoa) bezalakoak. Nafarroan, Nafarroako Foru Erkidegoan, hamarkada bat edo bi itxaron behar izan dugu parekagarririk topatzeko.

Hipotesia berretsi ala ezeztatuko ote den, jakin-min horrekin ekiten diot lerrook idazteari. Garaiak aldatzen ari direneko norabide berrian sartuta ote dagoen gure literatura txikia, edo txikitasun horrek berak, hemen inoiz adierazi izan dudana bezala, distortsio pertzeptiboak eragin ote ditzakeen, eta honakoa egun bakarreko lorea den, esan ohi denez.

Baina has gaitezen, nonbaitetik hasteagatik, poesiarekin. 2023an argitaratutako hiru poesia liburu aurkitu ditut eta hirurak emakumezko poetek idatziak dira.

Zeozer gaizki doa izenekoa atera zuen Beatriz Chivite Ezkietak (Iruñea, 1991) Pamiela argitaletxe nafarrean. Seigarren lana du honako hau. Planetak pairatzen dituen gaitzei erreparatzen die poemetan: kutsadura, klima aldaketa, merkantilismoa... Haie-tako zenbait aitari eskainiak dira, Fernando Luis Chivite erdal poeta handiari. «Berak nire adina zeukanean (32 urte) olerki liburu bat idatzi zuen, *Calles poco transitadas*,

eta niri eskaini zidan: *Poemas para B*». Orduan etortzear zegoen munduari buruzko poemak baziren. Nire aita mundu horren beldur zela ikusten zen; adibidez, bere buruari galdetzen zion: «Zertarako ekartzen dut bizitza bat mundura, zer gertatuko da mundu honetan?», adierazi du Londresen bizi den poetak.

Castillo Suarezek (Altsasu, 1976) *Alaska* kaleratu du, Elkar argitaletxean. Neurri batean *Irautera* (Elkar, 2019) liburuaren ildo poetikoan ondutako lana. «Zauria eta harekin lotutako eremu semantiko osoa (orbaina, ebakiondoa, odola, zauri irekia...) inguratzen dute liburu honetako poemek behin eta berriro eta ebakiondoak oroitarazten duen zauria da liburuaren erdigunea», esan du liburuaz Ibon Egaña kritikariaz. Irati Majueloren ustez, «Sarrera labur batekin abiatzen da, hitz lauz, eta, hala, prosa poetikoaren bidez eraikitzen du idazleak poema bildumaren unibertsoa, testura, giroa. [...] Sarrerak iragartzen duenez, sinbologia handiko lana da hau, emozio sakonak (galera, mina, arroztea) elementu indartsuekin lotzen dituen (armairuetako hutsuneak, zentral nuklearretako loreak, eukalipto suteak, adibidez). Izenburutik bertatik geratzen da hori agerian, Alaska, errepede ertzean abandonatutako hotela, galdutako espazioen sinbologia baita, ikusi aldiro iraganeko memoriak biziberritzen dituen eraikin hustua».

Oihane Zuberoa Garmendiaren (Erronkari, 1993) bigarren poema liburua da *Bi aldiz iraun*. Aurrez, 2020an, *Bidaia (h)ariketak* argitaratu zuen. Bi aldiz iraun liburua lau ataletan banatuta dago, eta atal bakoitzak, fruta jakin bati lotuta, urtaro banari egiten dio erreferentzia. «*Gogoan dut* batekin hasten da [...], eta bertso-lerroa bada bere laburrean liburuaren ildo nagusi baten aurrerapen. Tematikoa izan gabe ere, memoriak eta haren inguruko hausnarketa poetikoak aldenik alde zeharkatzen dute, izan ere, erronkariarraren liburu berria. Filosofiak eta literaturak elkarrekin topo egiten duten guneak maite ditu Garmendiak, eta horrek egiten du, besteak beste, bere begirada eta estetika berezko. Liburuko poemek berekin dakarte pentsamendua eta hausnarketa, eta aforismora ere hurbiltzen dira tarteka», seinalatzen du Ibon Egaña kritikariak.

Hiru izenburu hauei akaso beste bat gehitu ahal diegu, jatorriz euskaraz sortu ez bada ere. Poesia liburua da, baina itzulia. Gaztelaniaz idazten duen Ramon Andres iruindarraren poema liburu bat. Itzulpena arestian aipatutako hiru poetetako batek egin dio, Castillo Suarezek, eta Pamiela argitaletxean atera da. *Oihangintzako eskuliburua* du izen. Egilea aski ezaguna da idatzi dituen saiakera jakintsu eta jakingarriengatik, baina poeta ibilbide ez txikia ere badu. Izan ere, haren poemen antologiaren itzulpena da honako hau, zeinean zuhaitzak «leitmotiv eta ardatz» diren.

Narratiban uste dut komeni dela eleberrigintza eta ipuingintzaren arteko bereizketa egitea. Hedabideen eta irakurleen arreta gehiena erakartzen duen generoa, eleberria, utz dezagun guk geroko eta has gaitezen ipuin bildumetatik. Bi topatu ditut, eta kasu honetan ere biak bi emakumeen eskutik helduak.

Garazi Arrula Ruiz (Tafalla, 1987) *Lurraz beste* ipuin liburuaren egitea da. Txalapartan agertu da. Hau du bigarren ipuin liburua, errotzeez eta deserrotzeez mintzo diren errealitatearen arrakaletan hazitako zortzi kontakizunez osatua. Ibai Atutxa Ordeñana kritikariaren hitzetan: «Literatura egiteko lehengai gisa hartu du Garazi Arrulak bizi

dugun garai neoliberalaren izaera kontraesankor hori. Zortzi narrazioz osatuta dago Txalapartarekin argitaratu berri duen *Lurraz beste* eta 2017ko *Gu orduko hauek* liburuarekin hasitako bideari jarraitu dio idazleak. [...] Narraziogintzaren artearen erabilerarik trebeenak gurutzatzen du liburua. Ipuinera itzulera behartzen zaituzten amaierak eta istorioetako bizitza-txatal xumeek balio dute errealitate neurtezin batez jarduteko. Kontradikzio eta paradoxen zero-gune anonimoetara garamatzate narrazioek».

Animalia domestikoak du izena Esti Martinezek (Iruñea, 1991) Elkarren atera duen lehen ipuin liburua, sei urte lehenago poemategi bat, *Azalberritze bat*, argitaratu ondoren. Arrularena bezala, zortzi ipuinek osatzen dute bilduma hau ere. Haren inguruan honakoa idatzi du Jon Martin-Etxebeste kritikariak: «Familia tradizionala eta bikote disfuncionalak dira liburuaren ardatzak. Pertsonaiak, protagonistak eta bigarren mailakoak, hiru dimentsiotan perfilatuak daude. Argitaratutako lehen ipuin-liburua izanagatik eskarmentu handiko idazlearen eskua sumatzen da. Idazkera fina darabil nafarrak, neurtua eta dotorea. Modu borobilean hautatu ditu idazleak ipuinetarako gaiak eta metaforak».

Gizonezko izen gehiago agertzen zaizkigu ipuingintzatik nobelagintzara jauzi eginez gero. Izan ere, bertan, emakumezkoa da aurten salbuespena. Berarekin hasiko gara iaz argitaratu ziren eleberrien errepatso laburra.

Azpimarrak da Nerea Balda Sanjuan (Irurtzun, 1973) Ereinen plazaratu duen eleberraren izena. Bigarren lana du. «*Azpimarrak* eleberrian bikote harreman ugari, anitzak, desberdinak, patroi edo eredu klasikoetatik urrundu egiten direnak, non protagonistek ohikoa ez den heldutasuna, eskuzabaltasuna, pentsaera eta jokaera azaltzen duten. Kontraesanak bizi dituztenak, noski. Askatasunari eta ardurari kantua ere izan daiteke eleberria, non emakumeen bizipen eta ekintzek markatzen duten bizitzen klaketa, ausartak baitira eleberrian agertzen direnak», adierazi du Berriako bere kritikan Nagore Fernandezek.

Gainerako eleberriei dagokienez, nobela beltzaren presentzia bereziki nabarmena da. *Zer Berri?* aldizkariaren 165. zenbakian (2024ko apirilekoan) agian ez alferrik «Novela negra en euskera made in Navarra» izeneko erreportajea eraman du portadara, Ernesto Prat, Eneko Aizpurua, Aingeru Epaltza eta Jon Alonsoren argazki batekin batera.

Azken honek, Jon Alonsok *Carvalho Euskadi* eleberrian argitaratu zuen iaz Susa argitaletxean. Manuel Vazquez Montalban-en Pepe Carvalho pertsonaia ezagunaguna eta idazle bartzelonarraren literatur unibertsoa eta bere ohiko protagonista Enekoitz Ramirez Lanbas aspaldiko detektibe literario bat txirikordatuta jolasten duen eleberri beltz metaliterarioa. «Borroka armatuaz, euskaldunen nortasunaz, euskal sukaldaritzaren modernoaz, turismoranzko kultur biraketaz; oro har, euskal kapitalismo berantiarraz arituko da detektibe, hausnarketa hutsez batzuetan, ahosabaiaren zein elkarrizketaren laguntzaz bestetan. Gizartearen gaineko begirada hori Alonsoren lumak berezkoa duen ironia finaz lagunduta dago nobelan», dio eleberri bikoitza den eleberri honetan Asier Urkiza kritikariak.

Eleberria beltza edo intriga politikokoa da, halaber, Xabier Lasaren *Ura ez baita beti gardena*, Irun Hiria literatur sariaren sariduna, Elkar argitaletxean agertua, politikari ohiak inoiz publikatzen duen lehendabizikoa. «Thrillerra burokrazia eta joko politikoak nahasten dituen eleberriak Errege Bardeako irudi misteriotsuago bat ere erakutsiko baitigu [...]. Egileak thriller batentzako ezohikoa izan daitekeen protagonista aurkeztu digu, ingeniari bat, eta berarekin abentura eta arriskuak ezagutuko ditugu, bertan politikarekin eta urarekin jolastea hilgarria izan daitekeela ikasten dugun bitartea», laburtu du Sara Cabrerak.

Fertxu Izquierdo txantrearrak *...eta gauetik, euria* eleberria argitaratu du Pamiela argitaletxean. Izena aipatu ez arren, Txantrea izan daitekeen auzo batean kokatua; izan ere, honakoa auzo-nobela bat dela esan genezake, konexio unibertsal ugari dituen garai baten testigantza, errealista bezain surrealista, egiazkoaren eta irrealaren arteko mugak uztartuta. «Ongi hautatutako pertsonaia guti batzuen bidez belaunaldi oso baten kezketara hurbilduko gara. Horretarako guziz atzemangarriak diren prototipoak dantzan jarriko ditu, baita abilidadez eta graziaz eraiki ere, erreferentzia filmikoak eta gurean hainbertze hedatu ziren fanzineetako protagonista karikaturesko batzuk bailiran», idatzi du Jon Jimenezek lan honi buruz.

Gaueko azken expressoa atera zuen iaz Iruñean bizi den Eneko Aizpurua lazkaotarrak Alberdania argitaletxearen eskutik. «Lurralde eta identitatea, deserrotzea eta ibiliaren zentzua [...] landu ditu berriz ere idazleak *Gaueko azken expressoa* nobelan. Oraingoan ere Bidasoa ibaia da kontakizunaren haria, hark uztartuko ditu liburuko pertsonaien patuak. [...] Bidasoa, Minho, Douro eta Sena ibaiek osatutako amaraunean, hildako migrari portugaldarrak, euskal gatazka eta euskal identitatearen gaineko hausnarketa edota deserrotzearen bizimina azalduko dira, besteak beste. Izaera polifonikoak ere nobelaren mataza kiribiltzen du, ahotsok zein bere erara menderatzea eskatzen duenez» dio egilearen laugarren nobela honi buruz Asier Urkiza kritikariak.

Azkenik, beste nobela beltz batekin datorkigu genero horretan nabarmendu den Jon Arretxe, pantailara eraman berri duten Toure detektibearen sortzaile bizkaitar eta Arbizun kokatua. Izan ere *Musker amarruak*, Erein argitaletxean agertua, Toure pertsonaiaren hamargarren eleberria dugu. Arretxek eleberri sozial bat idatzi du berriz Toureren sagako hamargarren atal honetan, boteretsuen gehiegikeriak eta baztertuen egoera zorrotz salatzen dituena. Alabaina, *Musker amarruak* nobelan, idazle basauriarrak hain berezkoa duen umorea aurkituko du irakurleak, beltz samarra eta ukitu surrealista batekin.

Saiakerari dagokionez, panorama orekatuagoa dela esanen nuke. Iaz nafar saiakeragileek idatzitako obrak labur aipatuko ditut. Nerea Fillatek azken sei urteetan Hordago aldizkarian argitaratutako zutabeen aukeraketa argitaratu du *Adostasunik gabe: Burutazio deserosoak feminismo autonomotik* izenarekin, Nerea Fillat Oiz 2023. Aitor Aranak eta Koldo Colomok *Estellerriko euskara, Hegoaldeko goi-nafarrera / Estellerriko aldaera* Altaffaylla argitaletxearen eskutik. *Sahara, herri bat erresistentzian* kazetaritza kronika publikatu du Kristina Berasain Tristanek Berria, Jakin eta Elkarren artean kudeatzen duten Aleka bilduman. *Biziaroak: Herri Kultura* liburuak eskuratu

du aurten Nafarroako liburu saltzaileen euskarazko saria; egilea Juan Carlos Etxegoien Juanarena «Xamar» da. Estitxu Fernandez Maritxalarrek *Sortze berri bat: Indarkeria obstetrikorik gabea* izeneko saiakera argitaratu Txalaparta argitaletxean.

Deigarriak egin zaizkit nafar itzultzaileek euskarara ekarritako saiakeren kopurua eta kalitatea. Hor dugu Rafia Zakariaren *Feminismo zuriaren aurka*, Amaia Apalauza Ollok itzulia eta Elkarrek argitaratua; Iaz hildako Nuccio Ordineren *Alferrikakoaren balioa*, Fernando Reyk itzulia eta Pamielak argitaratua; Epikuroren *Zoriontasunaren defentsan*, Katakarak argitaletxeak plazaratua, Jonathan Lavilla iruindarraren eta Javier Agirrerren itzulpenarekin eta sarrerarekin; edo Louisa Yousfiren *Barbaro iraun* saiakera, Itziar Diez de Ultzurrun Sagaläk itzulia, Ainhoa Nadia Douhaibi oñatiarraren hitzau-rrearekin, Txalapartak argitaratua.

Ondorioak ateratzeko tokia hurbiltzen ari da. Izan ere, hau azken paragrafoa dela dirudi, baina zifrak (eta izenak) nahi dituenak eskura ditu hemen. Tendentzia argi bat, eta susmo bat ere mahaigaineratu dugu. Ondorioak, benetako ondorioak, hurrengo urteak edo urteek baieztatu beharko dute.

